



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Sendagile, sendatu zeure burua”

2022ko urtarrilaren 30a  
Urteko 4. igandea (C)

### Lukas 4, 22-30.

Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik. Baina zioten: “Ez al da, bada, hau Joserren semea?” Orduan, Jesusek esan zien: “Harako esaera hura oroitaraziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen, zeure herrian ere, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak”. Eta erantsi zuen: “Benetan diotsuet: Ez da profetarik bere herriari mesedegarri zaionik. Egiaz esaten dizuet: Emakume alargun asko zegoen Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta erdian euririk egin ez zuelarik, lurralde osoan gosete handia izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zuen haietako inorengana bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargun batengana baizik. Eta legendun asko zegoen Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zuen haietako inor sendatu, Naaman siriarra baizik”. Hau entzutean, sinagogako denak amorruz bete ziren. Eta, jaikirik, Jesus herritik kanpora bota eta herria jaso zegoen mendiko amildegi batera eraman zuten, handik behera jaurtikitzeko. Baina Jesus haien artetik igaro eta bere bidetik joan zen.

“Benetan diotsuet: Ez da profetarik bere herriari mesedegarri zaionik”

## EZ OTE DUGU PROFETA BEHARRIK?

*Jose Antonio Pagola*

«**Profeta handi bat sortu da gure artean**». Hori aldarrikatzen zuten Galileako herrixketan, Jesusen hitzek eta keinuek harriturik. Halere, besterik da gertatu Nazareten auzotarren artean gantzutu bezala, pobreen Profeta bezala agertu denean.

Jesusek haiek harritu izanari erreparatu dio lehenengo, eta uko egin izanari gero. Ez da gehiegi harritu. Esaera sonatua gogorarazi die: «**Hona nik esan: ez da profetarik bereen artean ondo hartua izan denik**». Gero, herritik kanpora aterarazi eta hil nahi izan dutenean, bertan behera utzi ditu Jesusek. Kontalariak dio: «**haien artetik irten eta urrundu zen**». Jesus Profetarik gabe gelditu zen Nazaret.

Profeta da Jesus eta halakotzat dihardu. Ez da tenpluko apaiza, ezta lege-maisua ere. Israelgo profeten tradizioa du bere bizi-eremua. Erregeak eta apaizak ez bezala, profeta ez du inork izendatzen, ez gantzutzen. Jainkoagandik du bere agintea, haren Espirituaz arnastu eta gidatu nahi du bere herri maitea, buruzagi politikoak eta erlijiosoak hartarako gai ez direnean. Ez da halabeharrezkoa kristauek profeta baten baitan haragitu den Jainkoa aitortu izana.

Nahastezinak dira profetaren ezaugarriak. Gizarte zuzengabe baten baitan, zeinetan boteretsuek negar dagitenean sufrimena isilaraziz beren ongizatea bilatzen baitute, ausart ageri da profeta: Jainkoak gizarteko azkenei dien errukitik ekin dio errealitatea irakurtzeari eta bizitzeari. Profetaren bizitza osoa bilakatu da «presentzia alternatibo», zuzengabekeria kritikatu eta konbertsiorako eta kanbiorako deia eginez.

Bestetik, erlijioa bera egoera zuzengabe bati egokitu eta Jainkoarenak ez diren interesak bere egin dituenean, profeta astindua emanez ageri da, axolagabekeria eta autoengainua dilindan jarritz, erlijio orok duen betikotasunaren eta absolututasunaren ilusioa kritikatu, guztiei salbatzailea Jainkoa bakarrik dela gogoraraziz. Profetaren presentziak esperantza berria harrotzen du; izan ere, geroa Jainkoaren askatasunetik eta maitasunetik pentsatzera eragiten du.

Jesusek eta haren jarraitzaileen profeta-alderdiari ezikusiarrena egiten dion Elizak profetarik gabe gelditzeko arriskua izanen du. Gaur egun, oso kezkatu gabiltza apaiz gutxi izateaz, eta apaiz-zerbitzurako bokazio eske ari gara. Zergatik ez eskatu Jainkoari profetak bidal ditzan? Ez ote dugu profeta-beharririk? Ez ote dugu sentitzen geure kristau-elkarteetan profeta-espiritua sustatu beharririk?

Profetarik gabe, Elizak ez ote du bizi Jainkoak egiten dituen konbertsiorako eta kanbiorako deien aurrean sorgor izateko arriskua? Profeta-espiriturik gabeko kristautasunak, ez ote bizi ordenuak, tradizioak edo Jainkoagandiko berritasunarekiko beldurrak kontrolatuak izateko arriskua?